



## PIERRES LARZABAL

# EL CURA DE SOKOA

**Euskal Herriko Kondairan apaiz famatuak ez dira falta: Cura de Mañeru; Cura de Hernialde (Santakruz, beraz); Cura de Lezaun (gaur Arizabaletan erretiratua); Aitzol, 1936-an afusilatua eta Lartzabal-en laguna izana; Montori-ko erretora, Beihl-en harrapaketan oso aipatua; eta abar. Joera diferentetakoak, jakina; baina denak nor bere garaian ezagunak, eta batera maitatuak eta gorrotatuak. Nola uka gaurko egunean Piarres Lartzabal, Zokoa-ko jaun-ertorari, datxekiola apaiz abertzaleen arteko txapela?**

Eta han izan gara, berriro, bes-tetan ere egondako paraje horiek bisitatzen. Eta han topatu dugu Aita Lartzabal, oraindik ere, egin-dako bi operazioen ondoren, osoki lehengo osasun-mailara ez etorririk.

**AITA LARTZABAL:** Enaiz ongi mintzaten ahal... Adina heldu zait, badakizu; eta horrekin... 65 urte!

**P. H.:** Ez kasorik egin! Ongi zaude. Eta zure mintzaira ongi ezagutzen dugu lehenagotik ere. Lasai! Ser berri duzu «Punto y Hora»ren irakurleentzat?

**P. L.:** Dena errana dut. Ene azke-neko liburua ezagutzen ahal duzu?

**P. H.:** Zein liburu?

**P. L.:** Eztatut oaino eman?

«Yo tuve en mi casa al sacerdote «Aitzol», días antes de su fusilamiento».

Oaintxe ekarriko dautzut bat. (Eta beste gela batetik ekarri dit delako liburua: «**Nere Mendixka-tik**»; eta azpian, eta azpi-titulu gisa, Zokoa-ko elizaren bi foto ederren azpian, beste hau: «**ETA-ko gudariez apez bat mintzo**». Hendaia, 1978). Etzinuen ezagutzen?

**P. H.:** Bai eta ez. Izenez bakarrik.

**P. L.:** Ba, hortxe duzu ene pentsamendua.

Eta ireki orduko, hau irakurri dugu: «Munduko gizon guziek onhart balezate indar armatu

bakar bat, morala horri jarraikiko liezken auzitegien zerbitzuko — orduan segur, gerla baztertua litake edo bederen gutitua. Bainan ez gira hortan eta ez goatzi hortarat... Horiek hola, ETA-ko gudariek zeramakaten gerla, ez zen gerrilla koxkor bat baizik. Eta harritzeko da zenbat moralista eta nor ari ziren ETA-ren borroka armatu horren kondenatzen. Kondenatzale zituzten frankistak... Kondenatzale komunistak... Kondenatzale Eliz buruzagi batzu... Kondenatzale PNV-ko batzu ere... Nere irudipena da kondenatzale horien jokaera zela ustela. Gatu horrek bazuela bertze buztanik. Horiek salatzen ez zutena zen beren diruari, kargueri eta protagonizmoari zuten atxikimendua. Nausi berririk ez zuten nahi; berak bakarrik, ordu artio, jaun eta jabe egon ziren alorretan...

P. H.: Ez dituzu zeure ideiak izkatutu.

P. L.: Ez orai eta ez sekula.

P. H.: *Aspaldidanik hasia zara, ordea. Oso oker ez bagaude, gerla aurreko «Aitzina»n ere idatzi biltzenuen zerbait.*

P. L.: Baliteke. Enaiz sobera orhoitzen. Baina gerla aitzinean euskal antzerki bat idatzi nuen, 1937 aldean; eta primaren bat irabazi ere bai Euskaltzaleen Biltzarrean.

**Mi abuelo paterno huyó a Euskadi Norte para librarse del servicio militar en el Estado español, y mi abuelo materno hizo lo propio; para huir del ejército francés se fue a Euskadi Sur.**

P. H.: *Gure alderdian gerra hasia zen ordurako.*

P. L.: Bai, bai. Neronek errezebitu nuen, hil baino lehentxeago, Azkaineko neure etxean, «Aitzol» famatua; eta neronek lagundu nuen Baionarat. Gizon ederra zen!

P. H.: *Azkaine muga ondoan da, eta zuek, muga ondokook, ez duzue sekula muga hori oso serio-tan hartu...*

P. L.: Ez, ez. Nere ama nuen lesakarra, eta aita urruñarra.

P. H.: *Ama española eta aita frantsesa!*

P. L.: Ez da fini ooino! Ene amaren aita, deserturra zen: armadan ez zerbitzatzeko, hemendik harat espakatu; eta ene aita, ere berean, beste desertur baten semea zen; baina hura handik hunat desertatua.

P. H.: *«Mugari tiro». Zure hitzak direla uste dut.*

P. L.: Pentsa! Hango kontuak gure kontuak izan dira beti Azkainen. Gure etxe ondoan bizi zen, Azkainen beraz, Santakruze-kin ibilitako nafartar bat, hura ere espakatu. Artzaina zen, eta ainitz aldiz entzuna nizkion 1873-ko gerla-kontuak. Santakruz, bertzalde, ni sortu eta hamabi bat urtetarat hil zen. Eta nafartar harek beti bukatzen zituen bere kondairak hitz berberekin: «hura zukan bai apaiza, potell!». Eta beharbada horrela sortu zen nigan, eta gaztetandik, apaiz abertzalea izateko asmoa.

P. H.: *Baina lehen Parisen utzi zaitugu, oraindik apeztu gabe.*

P. L.: Jakina. Ni 1939-an apeztu nintzen, alemanak sartu baino lehentxeago.

P. H.: *Eta alemanak sartzean?*

P. L.: Preso altxatu ninduten, eta Leipzig-era eramane. Eta «arbeitskomando» batean jarri. Nitakita zer egin enuen han? Peontzan, bide antolatzen, «kaminero», denetaik!

P. H.: *Eta gero?*

P. L.: Gero espakatu nintzen, eta Hazparnera ixilka etorri. Eta han berehala etorri zitzaizkidan lagun batzu: «Hi azkarra haiz. Zerbait egin behar diagu». Eta talde ixil



bat muntatu ginuen jendearen pasarazteko.

P. H.: *Juduak edo?*

P. L.: Denetaik. Eta hola egon ginen muga-lanean gerla bukatu artio: hiru urtez, beraz.

P. H.: *Ongi ikasi zenituen mugaren gorabeherak...*

P. L.: Ez dut uste askok nik baino hobeki ezagutu duenik!

**Tras huir del campo de Leipzig donde fui preso de los nazis, me dediqué a pasar gente clandestinamente por la frontera. Así al terminar la guerra, el Estado francés me nombró «Commandant».**

P. H.: *Eta gero?*

P. L.: Gerla bukatzean, sekulako ohoreak! «Commandant» izentatu ninduten.

P. H.: *Eta Apezpikuak zer zion zutaz?*

P. L.: Etzun fitsik erraten Apezpikuak. Eta orduan fundatu ginuen «Gure herria». Eta han idatzi nuen luzaz, baita antzerki-lanak ere bai. Orduan ezagutu nituen, antzerkigintzan ere, Montzon, eta Beobide gero.

P. H.: *Eta horrela iritsiko ginateke ENBATA-ren sorrerara. Ez da hala?*

P. L.: Bai, hori da. Halako batez, 1960-an, Ximuni Haran etorri zitzaidan ikustera; eta hau erran zautan: «Mogimendu abertzale bat muntatu nahi dut. Montzon ikusi dut. Eta Montzonek zugana igorri nau». Eta pertsona batzuekin mintzatu ondoren, orain gauden ganbera honetantxe sortu zen «Enbata», hilabetekaria hastean.

P. H.: *ETA-koak Iparraldera etorri baino lehenago, beraz.*

P. L.: Zuek berantago etorri zinezten. Eta beti erraiten dut gauza bera: Enbata hemen sortu zela, eta zuek hunat etorri baino lehenago ere sortu zela. Ez da egia, beraz, Enbata ETA-k sortu zuenik.

P. H.: *Hala da, badakit. Baina zenbaiti ez zaio hori aitortzea komeni: «ces espagnols qui f... », eta abar. Eta nor zineten, beraz?*

P. L.: Zazpi ginen. Haren bera, Labéguerie, Jaki Abeberri, Burukoa, ni neu, zera... enaiz oroi-

tzen... bai! Donibaneko Arramendi, eta Jean Louis Davant. Ah! Eta Mixel Epherre ere hemen zen. Zenbat dira?

P. H.: Zortzi ene zerrendan.

P. L.: Eztakit, beraz. Norbait berantxago sartua nunbait. Eta «Enbata»ren bi kahierak prestatu genituen: bata Davant-ek, stea neronek. Eta mogimendua abiatu zen.

P. H.: *Eta oraindik parte hartzen?*

P. L.: Begira: apezak beti parte hartzea ez da ona; eta nik idatziz-eta lagundu dut, baina ez bertzela. Baina orain dela hogoi urte, astero-astero izkiriatzen dut artikulatu bat.

P. H.: *Egiten baitu mila bat artikulatu, Enbata bakarrik...*

P. L.: Holako zerbait.

P. H.: *Eta zenbat antzerki?*

P. L.: Berrogoi bat handietarik; eta beste hirurogoi bat edo laburragoetarik.

**Fundamos «Enbata» antes de la llegada de los primeros refugiados de ETA.**

P. H.: *Inork ez bide du sekula euskaraz zuk baino gehiago idatzi.*

P. L.: Baliteke. «Herria»n eta «Gure Herrian» artikulatu andana egina dut. Eta Iparraldeko Irratiarentzat astero-astero, eta 8 urtez, irrati-sketchak ere egin ditut erruz.


P. H.: *Dudarik ez da, beraz. Txapelduna zu!*

P. L.: Kantitatean baliteke.

P. H.: *Eta «Anai Artea»z zer? Sekretario izan zara horretan hamar bat urtez.*

P. L.: 1968-an «estado de excepción» eta zapalketa gogorra azkartu zirenean, ihes egindako jendea betetzen hasi zen Iparraldea. Lehenengo mementuetan geure etxeetan hartu genituen ihesleak. Baina 1969-raz gero, ezina zen. Eta halako batez Telesforo etorri zitzautean, eta «Anai Artea» baten beharra azaldu zidan. Eta horrela sortu zen.

P. H.: *Eta berehala Burgos-ko hauria, eta Consul Beihl-en arazo*



*famatuia, zuek kuntzea zinatelarik!*

P. L.: Alemanekiko harremanetarako, «Anai Artea» proposatu zuen ETA-k; eta tartean gertatu ginen horretara.

P. H.: *Eta norekin ibili zineten?*

P. L.: Jendea bizirik da oono, eta dena kondatzerik ez dago. Halako batez bai, agian. Kotxe bategan elkartzen ginen, eta gibeletik, enkas, gure kotxe bat zetorren, «Kabra» rekin eta beste batzukin. Segituak ginen, eta bagenekien, eta segurantzibide guztiak hartu behar izan genituen.

P. H.: *Eta bazenekiten Madrillen zer gertatuko zen?*

P. L.: Beihl askatuz gero, Madrillen nehor hilko ez zutela agindu

**He escrito innumerables artículos, así como 40 obras de teatro largas y más de 60 cortas (en euskara).**

zaukuten. Nork jakin, ordea? Segida ezagutzen duzu. Baina kritika gaitzak izan genituen Beihl askatu zutenean.

P. H.: *Kritikak bakarrik?*

P. L.: Ez horixe! Orduantxe hasi ziren anonimoak eta mehatxuak telefonoz, kartaz, eta modu guztietara, heltzen: «Morirás cabrón»; «Te vamos a matar, rojo-

comunista»; eta abar. Ehunka, milaka agian.

P. H.: *Eta atentaturik ez?*

P. L.: Bai, bai. Halako batez zazpi polizi etorri ziren, hiru koxtetan. Ene etxe hau zaindua zen ordurako, jakina. Goiko ganberan eta behekoetan abertzale batzuk zeuden, zai, armaturik. Atarira jalgi nintzen; eta, hitzemanan zen bezala, oihuka hasi nintzen ni. Goiko leihotatik horretara, beren iskiluak erakusten zituztelarik, gure gudariak agertu ziren. Sekulako saltsa sortu zen ilunpe

**«Yo estoy con ETA militar»**

hartan, eta garrasiak eta korrikaldiak ugaldtu. Eta poliziak ahal bezala espakatu ziren. Beste baten, elizan, eta nirekin kobesatu nahi omen zuen bat elizan. Dena harturik gure aldetik. Eta ni neu ere, kofesionarioan, pistola kargaturik, kobesaten ari... Ez zen ezer gertatu. Baina ez nintzen ni txori bat bezala hiltzeko gertu. Zinez. Eta holako asko. Ainitz, benetan.

P. H.: *Eta jaz, Hendaia-ko Santana elizan, eta operatu berri zinelarik, gose-oporra!*

P. L.: Hamasei egunez, bai. Zer nahuzu? Zaharrok gara hil beharrrak, ez gazteak!

P. H.: *Eta egoera politikoaz, zer diozu?*

P. L.: ETA militarren alde naiz.

P. H.: *Hori esan dezaket?*

P. L.: Ba, ba: erraiten ahal duzu. ETA militarren alde naiz. Jokabide horiekin, bertzalde, PNV-a bere burua izorratzen ari da. Euskal Herria bi erro horiek dira; eta ezpadira elkarraitzen, dinok galtzen dugu. Baina zer gerta ere, partida irabazia dago. Egun latzak ezagutu beharko ditugu, hori bai. Baina Euskal Herria irabazi du. Dudarik ez.

P. H.: *Eta pasadizuren bat ez zenuke kondatuko?*

P. L.: Banuke, bai, moudo bat! Hona bat. Banentorren ni mugatik, halako batez, gaeuz, Haz-

parne aldera. Bide guztiak alemanez hartuak ziren. Eta nik nola sar ez nuen ikusten! Bideskan nindoala, horretara, zentinelatopatu dut; aleman zentinelak, jakina. Mozkor mozkorra! Hura poza! Banoa ni pasatzera, eta horretan lepotik heldu nau: «Maite zaitut, neska», ata halako, alemanez. (Ordurako ongi xamar nekien nik, Alemanian urtebetez egon ondoren). Eta gauzak horrela, eta ilunpe hartan deusik ere ikusten ez zelarik, eskua sartu du bularren aldera. Eta orduan ohartu da ez nintzela ni neskatxamaitagarri hura! Sekulako irriak egin ditu orduan.

Neure buruaz orduan nik konfiantza hartuz, eta alemanez, orroaz, lotsagarria zela zentinelalana horrela egitea, eta abar. Nondik nentorren eta gainerakoak, horrela, ahaztu ere egin dira. Eta ni, alemanengandiko

mila barkamenduren artean, etxera joan naiz lasai!!

P.H.: Oso polita, benetan. Segur naiz «Punto y Hora»ko irakurleek

gogoz egingo dutela farre. Agur i' erdi. Eta mila esker anitz!

TXILLARDEGI



Txillardegi ha recogido en esta interesante entrevista el testimonio de un auténtico cura-guerrillero. Una figura casi mítica como es el «Cura Larzabal» se suma a aquellos nombres casi legendarios de los Cura de Mañeru, Cura Santacruz, Cura de Lezaun, Aitzol... y una larga lista de sacerdotes que en algunos casos murieron, en los campos de batalla.

Nos encontramos con un Pierres Larzabal al que le costaba hablar. Quiso explicarnos que era debido a sus años, sesenta y cinco, pero terminó por confesarnos que fue una escueta noticia de tres palabras —que luego no resultó cierta, aunque a punto estuvo—, «Peixoto hil dute», la que le produjo una especie de parálisis que aún no ha llegado a superar del todo. Peixoto ocupó ya en su día estas mismas páginas.

Pierres Larzabal es aquel «Padre Larzabal» que tanto aireó la prensa del franquismo a raíz del secuestro del consul alemán Beihl, en vísperas del Proceso de Burgos. Aquel mismo «Padre Larzabal» que engrosaba las filas de los huelguistas de hambre de Baiona en protesta por los primeros intentos de deportar a los refugiados vascos de Euskadi Norte. La prensa franquista lo hizo famoso entonces, pero la trayectoria de Pierre Larzabal en el combate abertzale venía de lejos.

Nieto por parte materna de un iparretarra huído del Estado francés a Euskadi Sur para evitar el servicio militar y nieto a su vez por parte de su padre, de un hegoaldeitarra huído a Euskadi Norte para librarse del servicio militar en el Estado español. «Esta ascendencia familiar ha hecho que yo nunca tomase en serio la muga», añadiría Pierres Larzabal.

Apresado por los alemanes y conducido a Leipzig poco tiempo después de ordenarse sacerdote, logró escapar del campo donde estaba recluido, para a continuación dedicarse a colaborar con la resistencia durante tres años en el paso de gente a través de la frontera. «Pasábamos todo tipo de gente, judíos... No creo que nadie conociese mejor que yo la frontera», confiesa él. Formó parte del grupo inicial de «Enbata», como revista y como movimiento abertzale en Euskadi Norte, «Antes —aclara— de la llegada de los primeros refugiados de ETA, a pesar de que se atribuye a

ETA la iniciativa de la fundación de Enbata». Tanto en esta revista de la que aún es colaborador asiduo, como en otras como «Herria», «Gure Herria», escribió múltiples artículos, así como algunas obras de teatro, lo que le convierte en uno de los autores vascos más prolíficos.

Fundó Anai-Artea junto a Telesforo de Monzón. «Nuestras casas no fueron suficientes para responder a toda la avalancha que siguió al «Estado de Excepción de 1968 — afirma— tuvimos que crear una organización». Desde entonces ha sido uno de los pilares de apoyo a los refugiados vascos en Euskadi Norte.

Su colaboración en el secuestro del consul alemán Beihl, le hizo llegar múltiples amenazas por parte de la extrema derecha española. Amenazas que no resultaron meramente verbales. «Una vez — cuenta— aparecieron ante mi casa, en un automóvil, siete policías españoles que se vieron obligados a huir como pudieron ante la presencia en mi casa de un grupo numeroso de abertzales armados, todo ello en medio de un gran altercado. Posteriormente, vino una vez un hombre que dijo querer confesarse conmigo, pero cuyas intenciones no eran muy claras... Me libré por las medidas de seguridad que habíamos adoptado, también un grupo de abertzales armados habían rodeado la iglesia, y yo mismo estaba armado de una pistola en todo momento».

Sin embargo, a pesar de los años, aún no ha dado por finalizada su militancia en las filas vascas. Así, en la batalla librada el otoño pasado por los derechos de los refugiados vascos en Euskadi Norte durante la huelga de hambre comenzada en Hendaia y generalizada después a lo largo de toda Euskadi, Pierres Larzabal siguió en la brecha en huelga de hambre, en la iglesia de Hendaia, convaleciente aún de una operación quirúrgica a que había sido sometido. «Somos los viejos los que debemos morir — diría él— no los jóvenes».

Preguntado por sus posiciones políticas actuales, no duda en responder «estoy con ETA militar», sin alargarse más en consideraciones. «Mis ideas — dice— están lo suficientemente expuestas en un libro recientemente publicado, cuyo título es «Nere mendixkatik. ETako gudariez aper bat mintzo». ■